

## Axier Arriagak eman dio bukaera Literatura Asteari Garabi taldearekin

2007/05/11

Poesia musikatua izan dugu **HUHEZIKo** Literatura Astearen azken egunean. **Axier Arriaga** Haur Hezkuntzako ikasleak eta **Oier Arantzabal** haren lagunak jo dute. Bien artean **Garabi** taldea osatzen dute, eta gaurkoa izan dute lehen emanaldia.

Gitarra eta harmonikaren laguntzarekin, Garabi taldea joan da tartekatzen olerkiak eta abestiak, pantailan argazki aukeratuak agertzen ziren bitartean. Gaurko emanaldia oinarritu da proiektu batean, Axier Arriagak *Euskara eta bere didaktika* irakasgaiari aurkeztutakoa.

